


azpeitianzer?

udal aldizkaria

136. zenbakia
2011ko otsaila



Bisitariak erakarriz

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzu eta erabakiak
- 4 Proposamenak eta kexak
- 5 Banketxeekin euskaraz
- 6 Fototeka
- 7 Erakusketa
- 8 Erreportajea
- 10 Jabetze Eskola
- 11 Sansebastianak
- 12 Motxean
- 14 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Udal zerbitzuak

Gizarte zerbitzuak



Ordutegia

Azpeitiko Gizarte Zerbitzuak saila udaletxeko bigarren solairuan kokatzen da eta bertako ordutegia astelehenetik ostiralera bitartean 08:00etatik 15:00etara bitartekoa da.

Telefonia

Harremanetarako telefonia
943 15 71 92 da.

herriarren ongizatea da Azpeitiko Gizarte Zerbitzuen helburu nagusia eta horretarako baliabide ugari jartzen ditu azpeitiarren eskura. Pertsona nagusiei, adin txikikoei, ezinduei, drogamenpekotasuna dutenei edota etorkinentzat arreta eta laguntza bereziak eskaintzen ditu, besteak beste, diru laguntzak, informazioa, kanpaina desberdinak eta aholkularitza

zerbitzuak emanez. Era berean, indarkeria matxista jasotzen duten emakumeei babes osoa ematen zaie eta gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonen zuzendutako programak prestatzen dira. Bestalde, gizarte eta osasun alorretan aritzen diren elkarteei eta Gobernu Kanpoko Erakundeei diru laguntzak ematen zaizkie.

Gutuna



trenaren Euskal Museoaren Patronatuaren lehenengo bilera egin ondoren 2011ko urtarrilaren 17an, Julian Eizmendik, Azpeitiko Alkateak eta Fundazio horretako Patronoak, zera adierazi nahi du:

1.- Museoaren zuzendaria bere kargutik kentzeko erabakia aipatutako bilera egin aurretik hartua zegoen.

2.- Trenaren Euskal Museoa EuskoTren herri-baltzuak hamasei urte baino gehiagoan kudeatu ondoren, pentsatzekoa zen erakunde hori Fundazio berrira pasatzearekin, erakunde horri atxikitako langileak, bere zuzendari Juanjo Olaizola giza-talde horren buru zela erakunde berriari atxikiko zitzaiola, kontuan izanik horien ibilbide profesional egiaztatu eta kreditatua, eta urte hauetan lortutako emaitzak, Azpeitiko museo hori Estatuan eta Europan erreferentzia izatera eraman baitute.

3.- Patronoetakoren batek pentsatu izan balu Museoaren gaur eguneko giza-taldea, Museoaren zuzendaritza barne dela, aldatu beharra zegoela, Patronatuan proposatu behar zuen, behar bezala arrazoituta, hori baita Fundazioaren gobernu-organoa, gaia aztertu, eztabaidatu eta zegokion erabakia hartzeko. Baina erabakia aurrez hartua zegoen. Hori guztia Patronatuari ohostu zaio.

4.- Patronatuak onartu zuena izan zen gaur eguneko giza-taldea bere horretan mantentzea, bere zuzendari Juanjo Olaizola barne, harik eta hurrengo zuzendariaren hautaketa-prozesua amaitzen den bitartean.

Azkenik, Azpeitiko alkate moduan, nire atsegina agertu nahi dut Trenaren Euskal Museoko giza-taldeak, bere zuzendari Juanjo Olaizola buru dela, sorreratik egin duten lanagatik, hutsetik abiatuta, Europako tren-museorik onenetakoa bihurtu arte.

Eskaerei erantzunez



Iradokizuna

Landeta auzokoei gustatuko litzaiguke segurtasun gehiago edukitzea Asepeyo eta Zelan inguruko biribilgunean. Zehrabideak eta semaforoak “ambar”-en ez dute asko laguntzen, 20 gidaritik bat bakarrik gelditzen baita eta okerrago Errezil, Urrestilla edo Urrakitik badator. Seguruagoa izango zen oinezkoentzako botoia duten semaforoa jartzea. Ez dugu uste asko eskatzen dugunik, herriko beste leku batzuetan ere badaude. Aurrekoan eman zidaten aitzakia, gune horretan txapa istripuak egoteko aukerak zeudela da. Uste dugu beti hobeago izango dela txapa istripuak egotea pertsona bat harrapatzea baino, ez?

Txaro Uribesalza

Erantzuna

Odriako bidegurutzean ipini diren semaforoen moduan, saiaturako gara Diputazioarekin gune horretan ere horrelakoak jartzen.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

1. Liburutegiko oharrentzat ez al dago leku hoberik? Eraikinak merezi duelakoan nago.
2. Egoera hau noiz arte? Seinaleak zertarako daude jarrita? Susto ederrak sartzerakoan-irteterakoan (kotxeak aurrez aurre). Istripu bat izan arte?

Erantzuna

Leku hori ez da aparkalekua eta inork ez luke horrela hartu behar. Bestetik, ahaleginduko gara eraikina garbi mantentzen, ateak eta leihoak margotzea amaitu dugu eta leku eroso bat bilatzen saiaturako gara oharrentzat.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Loiolako Inazio etorbidea zeharkatzeko Esklaba eta Kiruri pareko zehrabideez gain tartean beste batzuk beharrezkoak direla iruditzen zait. Gainera Etxebeltz-Izarran auzo berri bat sortzen ari den honetan oraindik eta beharrezkoagoa dela esango nuke, alde batean auzo hori eta beste aldean Izarraitz auzoa, ikastola, Jesus eta Maria komentua... daudela kontuan izanda. Errepideko zehrabideak baino lur azpiko pasabideak hobeak dira, eta agian hau da horiek egiteko momentu egokiena, inguruan obrak egiten ari direnez. Nahiz eta errepide hori Foru Aldundiarena dela jakin, Azpeitiko Udalak zeresan eta zeregin handia duen gaia dela iruditzen zait, eta bere esku dagoena egiteko eskatu nahi nuke.

Eskerrik asko.

N. Muxika

Erantzuna

Badago proiektu bat, Diputazioarekin batera lantzen ari garena, Kiruri aurrean alde batetik bestera pasatzea erraztuko duena. Denbora asko igaro aurretik exekutatzeko espero dugu.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Txaribar erreballean, hilerritik behera kotxeek ematen duten abiadura altua dela-eta, kotxeek umeren bat harrapatzeko arriskua dago. Beraz, abiadura jaisteko koskak edo beste neurriren bat hartzea proposatzen dut. Bestalde, Soreasu auzotik Txaribar errebalera dagoen paso estua, oraindik okerrago geratu da, bertan jarritako hesiagatik. Honek, bertatik pasatzeko maniobra dexente egitea eskatzen du eta gainera zoruko egoera txarra (harri solteak) gehituz gero, penagarri geratzen da. Ea zerbait egiten den egoera hobetzeko.

Ainhua Unanue

Erantzuna

Abiadura murrizteko zerbait jarriko dugu.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Arana Goikoako kaleetan gero eta zailagoa da aparkatzea. Torre handiaren atzeko zelaian aparkaleku ederra jarri dezakezu eta guri mesede ederra egin.

Jon Iraolagoitia

Erantzuna

Jesuitinak eraikineko aparkalekua gauzez eta asteburuz zabaldua egoten da bertan autoa uzteko. Bestalde, obrak egiteko asmoa badago Aranan, epe luzera, baina zuk diozun zelai hori pribatua da eta beste proiektu batzuk aurreikusten dira bertan.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Loiolabideko etxebizitzaren aurrean hamar zakarrontzi daude, ez dira gutxi. Denak errepide aldera irekitzen dira, eta nahiz eta eramaten dituzten kamioientzat errazagoa izan, pertsonentzat oso arriskutsua da, mesedez, aldatu.

Iñaki Iribar

Erantzuna

Nahiz eta ontzi guztiak ez diren errepide aldetik zabaltzen, ahaleginduko gara bai leku horretan eta bai besteetan, pertsonen arriskua ekiditzeko moduan jartzen ontziak.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Ba al dago Pastorkua-Arantxa umeen arropa denda edo anbulatorio ondoko esplanada txikia konpontzeko asmorik? Zeren handik pasatzeko arrantzarako bota handiak behar dira gutxienez, eta euria egiten duen egunetan zer esanik ez.

Erantzuna

Gune horretan zerbait egiteko asmoa badago, baina bertako bizilagunekin adostu beharko da, publiko/pribatua baita.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.



Banketxeekin harremanak, euskaraz

Azpeitiko Udalak hitzarmena sinatu du Kutxarekin eta Euskadiko Kutxarekin

Kutxak eta Euskadiko Kutxak euskaraz lan egiteko konpromisoa hartu dute. UEMAK eta bertako 40 udalerrik abenduaren 18an Deban egindako ekitaldian, Azpeitiko Udalak hitzarmena sinatu zuen bi banketxeekin, erakunde hauek eskaintzen dituzten komunikazio guztiak euskaraz egiteko.

Honela, konpromiso zehatzak betetzea adostu dute sinatzaileek. Hauen artean aurkitzen dira, besteak beste:

- Langile finko zein aldi baterakoak euskaldunak izatea eta behar bezala prestatuta egotea komunikazioak euskaraz ondo eskaintzeko.
- Bezeroei lehen hitza euskaraz egitea.

- Produktuak kontratatzen direnean eskaintza euskaraz egitea.

- Txartelak euskaraz sortzea esan ezean.

- Euskara erabiltzeko sustapena era desberdinez egitea.

- Publizitate, kartel eta esku orriak euskaraz egotea eta lehentasuna izatea.

- Libreta eta kontuetako idazpenak euskaraz egotea.

Sinatutako hitzarmena bost urteren barruan beteta egotea aurreikusten dute arduradunek eta jarraipena egiteko asmoz, jarraipen batzorde bat eratuko da, urtero helburu zehatzak ezarriko dira eta hizkuntza neurketa zehatzak egingo dira.

Bigarren hitzarmena

Azpeitiko Udalak eta Kutxak sinatzen duten bigarren hitzarmena da hau, izan ere, 2010eko maiatzean beste bat sinatu zuten. Orduan, Udala eta banketxearen arteko harremanetan eta bulegoetan euskararen erabilera areagotzea zen helburu nagusia eta Julian Eizmendi alkateak pauso garrantzitsutzat jo zuen. "Pisudun urratsa eman dugu euskararen normalkuntzaren bide luzean. Gainera, nabarmentzekoa da Kutxa bera izan dela ate-joka etorri dena proiektua bideratzeko", agertu zuen.

Maiatzean sinatutako hitzarmena mantendu egingo da eta UEMAREN baitan lortutako akordioa oinarritzko hitzarmen hartan sakontzeko baliogarria izango dela nabarmendu dute arduradunek.



Nolakoa zen Azpeitia? Galdera horri erantzun nahi dio Azpeitiko Argazki Elkarteak. Azpeitia eta inguruak islatzen dituen argazki zaharrak bildu nahi ditu.



1974-I-20an Pepe Gil argazkilariak San Sebastian egunean eliz atarian atera zuen. Aurrean, musika bandako kantinerak agertzen zaizkigu: M^a Jose Larriba, Urrategi Alberdi eta Ana Saldaña. Atzerago, J.M^a Altuna bandako zuzendaria eta barrenean, Abel Seguroa.


Anekdota gisa: Kantineren gorroak edo kapelak Azkoitiko musika bandako gorroak ziren.

Mertxe Landak
utzitako argazkia.



Fernando Lizarralde utzitako argazkian langile eta nagusien arteko ospakizuna ikus daiteke. Bertan, Lizarralde anaiak ikusten dira erdian, Eloy eta Ildefonso. Lizarraldetarak zemitza tailerra zuten Misericordia aurre inguruan. Langileen artean, Txapel bertsolaria aurkitzen da, eskuinean zutik, bere bi semeekin eta Ansola zakurrarekin.

Fernando Lizarralde
utzitako argazkia.



1.773 ikusle pasa ziren argazki zaharren erakusketatik

Hirugarren ekitaldi bat prestatzen hasiko da Azpeitiko Argazki Elkartea

azpeitiko Herri Gutunaren 700. urteurrenaren inguruan, joan den abenduaren 27tik hasi eta urtarrilaren 9ra bitartean Azpeitiko II. argazki zaharren erakusketa egon zen zabaldua Sanagustin erakustokiko aretoan eta antolatzaileak oso gustura agertu dira herritarren aldetik izandako erantzunarekin. Izan ere, guztira, 1.773 ikusle igaro ziren bertatik, eguneko 126 pertsona.

“Kontutan hartuta Argazki Elkarteak erakusketekin duen eskarmentua, 27 urte bete berriak hain juxtu, zera esan genezake: mila ikusle go asko badira, kopuru horretatik gora arrakastatsutzat hartu behar dela ekitaldia. Gainera, apirilean egindako lehen ekitaldian 2.000 pertsonatik gora izan ziren, beraz,

argazki zaharren erakusketak herritarren gozamenerako ekintzak dira”, agertu du Argazki Elkarteko kide den Joxe Ramon Larrañagak.

Erakusketaren lehen egunean gertatutakoa nabarmentzen du Larrañagak; Sanagustinen umeentzat filma eskaini zuten eta bitartean gurasoek erakusketatik pasatzeko aprobetxatu zuten, “arratsalde batean 254 pertsona igaro ziren, datu esanguratsua zalantzarik gabe”.

Hau guztia ikusirik, Argazki Elkartea hirugarren ekitaldi bat prestatzen hasiko dela aurreratu du Larrañagak eta herritarrei deialdia luzatu nahi zaie etxean dituzten irudi zaharrak uzteko esanez: “Erakusketa berria egiteko

herritarrek dituzten argazkiak, negatiboak edo klitxeak behar ditugu. Horretarako, udaletxeko 3. solairuan dagoen Kultura sailera joan eta arduradunarekin hitz egitea besterik ez da egin behar. Argazki orijinalak, jabeek itzuliko zaizkie ondoren”, argitu du.

Erakustokia herritarrei zabaldua

Edozein motatako erakusketa antolatu nahi duten herritarrek Sanagustin erakustokia erabili dezakete aurrerantzean. Udalak herriko artista edota talde guztiak animatu nahi ditu argazki, koadro edota bestelako lanak erakutsi ditzaten. Aretoa hartu edota daten informazioa jakiteko, Udaleko Kultura sailera joan edota 943 157068 telefono zenbakira deitu beharko dute.



Turismoari ateak zabalduz

Bisitariak erakartzeko hiru baliabide nagusi ditu Azpeitiak; Loiola, San Ignazio eta Tren Museoa

azken urteetan turismoa garrantzi handiko jarduera bihurtu da edozein lurraldetan, eta nahiz eta Azpeitiko aktibitate nagusia ez izan, gero eta ahalegin gehiago egiten ari da herria bisitariak erakartzeko, izan ere, fluxu ekonomikoak sortzea da helburu nagusia.

Turismoa sortzeko herria 'saldu' behar da kanpotarrei eta horretarako erakusleihoz egunenenak azokak dira, eta hauen artean, Madrilera Fitur. Urtarrilaren 19tik 23ra ospatu zen Fitur-eko azken edizioa eta

Azpeitia bertan ordezkaturik egon zen, Euskadiko eta Gipuzkoako eskaintza turistikoaren barnean: "Azpeitiak hiru baliabide nagusi eta zehatz ditu eta hauek lurralde mailan dauden ibilbide tematikoen barne saltzen dira eta ez Azpeitia bera herri bezala", agertu du Iraurgi Lantzeneko turismo saileko teknikari den Jesus Mujikak. Honela, Loiola eta San Ignazio Hiru Tenpluen ibilbidearen baitan kokatzen da eta Trenaren Euskal Museoa, berriz, 5 geltoki historian kanpainaren barruan.

Hiru baliabide nagusi hauek beste baliabide natural eta ondare historiko artistikoekin osatzen dira. "Nolabait, aipatzekoa da hemengo baliabideak Euskadiko, Gipuzkoako eta eskualdeko eskaintzen barnean sartzen direla, erakunde publikoen arteko elkarlanari esker. Adibidez, Euskadik egiten dituen programetan sartzen da Azpeitiko eskaintza eta horrek lagundu egiten du", gaineratu du Mujikak. Horrela, Euskadiko baliabide naturalen artean Izarraitz mendikatea edota Ernio daude eta ondare artistiko historikoetan,

parrokia eta Soledadeko Kapera nabarmentzen dira.

Azpeitira bisitariak etortzeko arrazoi nagusia Loiola da. "Egun oso bat edota goiz bat hartzen dute Loiolako ingurua ikusteko eta ezagutzeko, sarrerako atea dela esan daiteke, eta bertako turismo bulegoak herriko beste interes guzietara bideratzen ditu bisitari hauek", esan du Iraurgi Lantzeneko teknikariak.

LOIOLAKO BISITARIEN ZENTROKO
ZERBITZUEZ BALIATU DEN
PERTSONA KOPURUA

2009. urtean

17.553 bisitari

2010. urtean

19.770 bisitari



Kalitatearekin konpromisoa

Kalitate Turistikoarekin Konpromezua ziurtagiria ateratzeko taldea osatzeko deialdia egin du Iraurgi Lantzen agentziak. Taldea martxoan hasiko litzateke lanean, eta deialdia Urola Erdiko (Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Errezil eta Aizarnazabal) alojamendu, jatetxe edo turismoarekin eta ostalaritzarekin loturiko establezimenduei zuzenduta dago.

Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetzatik bultzatu eta Urola Erdia eskualdean Iraurgi Lantzen S.A.k koordinatzen duen programa honen helburuak, establezimenduei beren kudeaketan etengabeko hobekuntza bermatuko dien tresnez hornitzea alde batetik, eta eskualdea Euskadi barruan kalitateko destino turistikoa moduan kokatu eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetzak arlo honetan dituen helburuekin bat egitea bestetik lirateke.

"Kalitatea, orokorrean, Euskadin goraka doa eta Azpeitiak ez du salbuespen bat izan behar eta beharrezkoa da horretarako prestatzea. Gainera, ekartzen dituen onurak anitzak dira, besteak beste, etengabeko hobekuntza du kudeaketan edo gestioan eta bezeroetan zeharkako efektua eragiten du", azaldu du Mujikak.

Parte-hartzeko interesa duen orok, otsailaren 9a baino lehen Iraurgi Lantzeneko egoitzara hurbildu (Intsausti Jauregia, Azkoitia) edota bertara deitzea (943 851 100) besterik ez du.

Azpeitiko Burnibidearen Euskal Museoa, Larrañaga Hotel-jatetxeak, Jai-Alai Jatetxeak eta Kiruri Jatetxeak 2009an lortu zuten ziurtagiria eta zikloaren bigarren urtea arrakastaz gainditu ondoren ziurtagiri hau berritzea lortu dute. Bestalde, Mikel Uria Jatetxeak 2010 urtean zikloko lehen urtea arrakastaz gainditu du eta otsailaren 10ean egingo den ekitaldian jasoko du ziurtagiria.



Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartuz

Ekaina bitartean bost ikastaro berri antolatu ditu Parekidetasun sailak

Emakumeak eremu publikoan duen parte-hartzea bultzatzeko asmoarekin sortu zen 2010ean Azpeitiko Jabetze Eskola. Ordudanik, emakume ugari pasatu dira antolatutako tailerretatik dituzten eskubideez gehiago jakin eta jabetzeko; "eta oraingoan, ikastaro hauek izan zuten arrakastari jarraipena emateko asmoz gatzoz. Gainera, emakume denek topalekua izan nahi duen Emakumeen Txokoaren irekiera ere ospatuko dugu aurten, eta beraz, ilusio handiz ekingo diogu aro berri honi", agertu dute arduradunek.

Horrela, ekaina bitartean gai eta arlo desberdinak landuko dituzten bost ikastaro berri antolatu ditu Parekidetasun sailak:

- **Auto-estimatu tailerra.** Emakume izateak nola eragiten duen eta gorputzarekin sentipenak hausnartzea izango da Pepa

Bojok emango dituen saioren helburua. Klaseak astelehenetan izango dira 15:00etatik 17:00etara bitartean edo 17:00etatik 19:00etara.

- **Autodefentsa feminista tailerra.** Isa Bernalen eskutik emakumeenganako indarkeria mota guztiei aurre egiteko baliabideak ikasiko dira. Martxoaren 11ean eta 12an emango da eta ordutegia ostiralean 16:00etatik 20:00etara izango da eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- **Teoria feminista ikastaroa.** EMAGIN dokumentazio eta ikerkuntza zentro feministak eskainiko duen ikastaroa martxoaren 5ean, 19an eta 26an egingo da 10:00etatik 13:00etara eta bertan, feminismoa zer den eta zer printzipioetan oinarritzen den azalduko da.

- **Transfeminismoa hitzaldia.** Itziar Zigak martxoaren 24ean eskainiko duen hitzaldia 19:00etan hasiko da eta pertsona guztien integrazioarako emakume-gizon binomioarekin apurtzearen beharraz izango da.

- **Gorputzaren erotika tailerra.** Ikastaro honetan zentzumenen bitartez lortzen diren sentsazioak eta ahalmenak aztertu, eta gorputzaz askatasunez gozatzea eragotzen duten mugak gainditzeko ikasiko da. Tailerra ekainean izango da baina eguna eta ordua zehaztu gabe daude oraindik.

Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek Parekidetasun Sailera joan beharko dute, udaletxeko hirugarren solairuan dago kokatuta, edota 943 157928 telefono zenbakira deitu.



Sansebastianak, onak

Udaleko Festa batzordeburuak urtarrileko jai egunen balorazio positiboa egin du

aurtengo sansebastianetan 1.800 danbor eta barrika inguruk herriko kaleak alaitu zituzten. Aldaketa ugarirekin iritsi ziren eta kezka bazen herritarren artean dena ondo joango ote zen. Udal ordezkariak, ordea, oso gustura agertu dira bi egunetan zehar izandako giroarekin eta positiboki baloratu dituzte urtarrilaren 19ko eta 20ko egunak: “Festak giro onean joan dira eta jendeak ondo pasatu du”, agertu du Jabier Altunak, Udaleko Festa batzordeburuak.

Lau talde berrik hartu zuten parte Helduen Danborradan, eta horrek eragin zituen aldaketen artean festaren hasiera ordubetez atzeratzea, ikusleentzat leku gutxiago izatea plazan, edota parrokiako geldialdian talde batzuk Perez Arregi plazan egotea izan ziren. “Antolatuta

bezala atera zen; Enparantza Nagusian ez zen toki arazorik egon eta Perez Arregiko berrikuntzak ere harrera nahiko ona izan zuen. Hala ere, onartu behar da jende gutxiago ibili zela kaleetan eta berandu bukatu zela”, gaineratu du arduradunak.

“Bukaera ‘soso’ samarra izan zen, gure ustez, datorren urterako plazan bukatzeko modua aurkitu beharko genuke”

Orokorrean, Udalak balorazio positiboa egin duen arren, zenbait gauza hobetu behar direla onartzen du, festaren amaiera adibidez, eta horretarako lanean hasiko dira; “Bukaera ‘soso’ samarra izan zen. Gure ustez, datorren urterako

zertxobait aldatu beharko da eta berriz plazan bukatzeko modua aurkitu. Ideia batzuk baditugu eta taldeei otsailak 2an egingo den bileran azalduko dizkiegu”, aurreratu du Altunak.

Txikien Danborradari dagokionez, guztia ondo atera zen. Herritarrei karroza asko gustatu zitzaizen eta Eider Joaristi diseinatzailea zoriondu nahi du Udalak.

Adin txikikoak sokamuturrean


Urtarrilaren 23an sokamuturra antolatuta zen eta adin txikiko mutil bat larriki zauritu zen bertan, sokak harrapatuta erori eta gero. Gertakari honen aurrean, Udalak argi utzi nahi die adin txikikoei ezin dutela sokamuturrean ibili; “Udalak abisuak jartzen ditu, hesiak jartzen ditu... baina askoz gehiago egiterik ez du”, esan du Festa batzordeburuak.

Jexuxa Arangurennek 100 urte



Jexuxa Aranguren azpeitiarrak 100 urte bete zituen 2010 urteko azken egunean eta ohitura den moduan, Julian Eizmendi alkatea eta Ana Mendizabal zinegotzia omenduaren etxera joan ziren urtebetetze egunean “herriaren izenean zorionak emateko” helburu garbiarekin. Era berean, eta Jexuxa zoriontzeaz gain, udal ordezkariak lore sorta handi bat eta Mikel San Juan eskultoreak egindako oroigarria eman zioten omendutakoari. Oroigarrian, “hain maitea duen” Olatzeko Amaren irudia eta bere Azautzeko baserria azaltzen ziren. Zorionak Jexuxa!

Enpresen mapa, sarean



Iraurgi Lantzen garapenerako agentziak joan den abenduan aurkeztu zuen Azkoitiko eta Azpeitiko enpresen mapa sarea interneten jarri du dagoeneko, www.iraurgilantzen.net webgunean. Zerbitzu berria Enpresa atalaren barruan dago eskuragarri eta bi udalerrietako industria-guneetan kokatzen diren enpresa guztien informazioa biltzen du; kokapena, helbidea, lan egiten duen jarduera, logotipoa eta harremanetarako telefonoa, besteak beste. Modu honetan, 350 enpresa ingururen datuak ezagutu ditzakete erreminta berria erabiltzen duten herritarrek.

Korrika egitea errazten



martxoaren 26an izango da aurtengo Azkoitia Azpeitia XVIII. Maratoi Erdia eta bertan korrika egin nahi duten herritarren partaidetza errazteko asmoz, Azpeitiko Udalak zerbitzu desberdinak eskainiko ditu lasterketaren egunerako. Horrela, korrikalariak Azpeititik Azkoitira joateko doako autobus zerbitzua izango dute, igerilekuko aldagelak erabiltzeko aukera izango dute eta gurasoa direnentzat, berriz, Sanjuandegiko Txiki Txoko ludotekan 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat haurtzaindegia izango da. Haurtzaindegi zerbitzua erabiltzeko Udaleko Kirol sailean eman beharko da izena.

Igogailua Oktogonoko eraikinean



Oktogono edo Perretxikoak bezala ezagutzen den eraikinak igogailua du. Abenduan eta urtarrilean zehar egin dira lanak, eta modu honetan, irisgarritasun neurriak beteko ditu eraikinak. Izan ere, EPA edo Helduen Eskola Publikoa bertan kokatzen da eta ikasleei ahalik eta erraztasun gehienak ematea da Udalaren helburu nagusia. Igogailu berria jartzeko lanek 76.163 euroko aurrekontua izan dute eta kopuru guztia diru laguntzen bidez finantzatu da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritza eta IMSERSO-ONCE erakundeek eskutik.

agenda

OTSAILA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						



4, ostirala

LOINAZKO
MARTIN DEUNAREN
SANTA AGEDA JAIK
MANTXINBENTAN

Goizean herriko gazteek santa eskea
Laja, Izer eta Loidisaletxekin
Iluntzean, festeei hasera
emateko suziariak

Ondoren, erromeria Xabier Etxaniz eta
Lidia Irigoienekin eta santa eskekoekin

5, larunbata

LOINAZKO
MARTIN DEUNAREN
SANTA AGEDA JAIK
MANTXINBENTAN

11:00etan meza, Azpeitiko
jubilatuen abesbatzarekin
Ondoren, jubilatuentza hamaiketakoa

21:00etan bertso afaria Iker
Zubeldia eta Julio Sotokin,
Soinujoleak: Lopetegi ahizpak

II. AUTOKROSS
DISKO-FESTA

17:00etatik 21:00etara
Lekua: Inox dantzalekua

SANAGUSTIN KULTURGUNEA
KONTZERTUA

Barbara humana con cola.
Dantza musika esperimentalak
19:30ean

DVD EMANALDIA

17:00etan, El aprendiz de brujo
22:00etan, Amador
Lekua: Betharram Aretoa

6, igandea

LOINAZKO
MARTIN DEUNAREN
SANTA AGEDA JAIK
MANTXINBENTAN

11:00etan meza

Ondoren, umen jolasak

Pelota partiduak: Azpeitiko
Ilunpe Elkarteko pelotariekin

Goiz osoan artisau azoka

Arratsaldean herri kirolak:
Aizkoran: Azurmendi eta Nazabal eta
Harrijasotzen: Aimar Irigoyen ta Izeta II

Arratsalde bukaeran,
Matxinbentako otarran zozketa
Egun guztian Itzeder ta
Joseba trikitilariak

DVD EMANALDIA

17:00etan, El aprendiz de brujo
22:00etan, Amador
Lekua: Betharram Aretoa

10, osteguna

ZINE KLUBA
Lourdes

21:30ean

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

11, ostirala

ORKATZ
KULTUR ELKARTEA
KONTZERTUA
22:00etan

12, larunbata

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
KONTZERTUA
16:00etan

DVD EMANALDIA
17:00etan Otra vez tu?
22:00etan El Americano
Lekua: Betharram Aretoa

TXOTX INDEPENDENTISTA
20:00etan
Lekua: Berdura Plaza

SANAGUSTIN
KULTURGUNEA
KONTZERTUA -> GRISES
eta MONDOKANE
22:30ean

13, igandea

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
ANTZERKIA
"Herio heroi" antzezlanak
19:00etan



DVD EMANALDIA
17:00etan Otra vez tu?
22:00etan El Americano
Lekua: Betharram Aretoa

16, asteazkena

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
HITZALDIA
"Juantxo Madariaga"
19:00etan

17, osteguna

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
UDAL MUSIKA
BANDAREN entsegua

19, larunbata

PIRRITX ETA PORROTX
BI EMANALDI
IZANGO DIRA
16:00etan eta 18:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekua

DVD EMANALDIA
17:00etan Gru mi villano favorito
22:00etan When you're strange
Lekua: Betharram Aretoa

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
KONTZERTUA
"GORA JAPON"
22:30ean

20, igandea

GAZTERIA SAILAK ANTOLATURIK:
TXIKI BIRAN
Lekua: Urrestilla
12:30ean

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
UDAL MUSIKA BANDA
KONTZERTUA
13:00etan

DVD EMANALDIA
17:00: Gru mi villano favorito
19:30: When you're strange
Lekua: Betharram Aretoa

24, osteguna

ZINE KLUBA
Garantxo
21:30ean
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

25, ostirala

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
BERTSO saioa
22:00etan

26, larunbata

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
ZEZEN BELTZ ELKARTEAK
antolatuta:

AZPEITIKO SOKAMUTURRARI
BURUZKO
DVD aurkezpena
Arratsaldez

UDAL MUSIKA BANDA
KALDEREROAK

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
UDALAK
ANTOLATURIK
GATIBU taldearen kontzertua
22:30etan

27, igandea

URREZKO
AIZKORAREN
BINAKAKOTXAPELKETA
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 12:00

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
UDAL MUSIKA BANDA
INAUTERI KONTZERTUA
13:00etan

DVD EMANALDIA
17:00etan Umeentzako
emanaldi berezia
Lekua: Betharram Aretoa

SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN
LEOK TALDEAREN
KONTZERTUA
19:00etan

Azpeitiko historia zure eskuetan

Ipuin eta liburu bildumak salgai
Udaleko Kultura sailean,
943 157068 telefonoan edo
kultura@azpeitia.net helbidean.

Haurrentzat ipuin bilduma:
10 euro

Helduentzat liburu bilduma:
50 euro edo liburu bakoitza:
15 euro



botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
otsailaren 1, 18, 22 eta 25

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
otsailaren 2, 14, 19, 20 eta 23

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
otsailaren 4, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 16 eta 28

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
otsailaren 3, 15 eta 24

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
otsailaren 5, 6, 17, 21, 26 eta 27

